

KANALAK

Gure proiektua garatzeko, kanal desberdinak erabiliko ditugu modu estrategiko eta koordinatuan, gure zerbitzuak eraginkortasunez banatzeko, salmentak burutzeko eta bezeroekin komunikazioa mantentzeko. Banaketa, salmenta eta komunikazioari dagokienez, guztiek izango dute berezko funtzioa, baina elkar osatuko dute bezeroaren esperientzia erraztu eta aberasteko.

Banaketa-kanala guztiz presentziala izango da. Hau da, gure zerbitzuak eta produktuak zuzenean jasotzeko, bezeroek gure instalazioetara edo ekitaldi-lekuetara hurbildu beharko dute. Eredu honek esperientzia pertsonalizatua bermatzen du, eta bezeroarekin aurrez aurreko interakzioan oinarritzen da, zerbitzuaren kalitatea eta xehetasun guztiak kontrolpean izateko aukera emanez.

Salmenta-kanalak ere presentzialtasunean oinarrituko dira. Gure eskaintza ezagutarazi eta kontratatzeko, bezeroek gure profesionalekin zuzenean hitz egin ahal izango dute, euren nahiak, ideiak eta asmoak errealitate bihurtzeko helburuarekin arituko gara jardunean. Harreman zuzena ezinbestekoa da gure zerbitzuetan, bezeroaren beharrak sakon ulertzeko eta horiei erantzuteko. Elkarrizketa horien bidez, zerbitzu eta produktu pertsonalizatuak eta beharretara egokituak diseinatzeko aukera izango dugu, harremana hurbilagoa eta fidagarriagoa bihurtuz.



Komunikazio-kanalei dagokienez, hainbat aukera eskainiko ditugu: presentziala, telefono bidezkoa eta posta elektronikoa. Presentzialtasunak hurbiltasuna eta konfiantza sustatzen ditu, batez ere gure zerbitzuaren izaera emozionala kontuan hartuta. Telefono bidezko komunikazioak azkartasuna bermatzen du, kontsulta edo hitzordu azkarrak kudeatzeko. Mezu elektronikoa, berriz, dokumentu ofizialak bidaltzeko, eskaintza zehatzak aurkezteko edo komunikazio formalen erregistroa mantentzeko erabiliko da.

Kanal hauen erabilera integratu eta egokitua gure zerbitzuaren kalitatearen eta bezeroaren esperientziaren oinarria izango da. Antolakuntza eta komunikazio

eredu honen bidez, gure proiektuak eraginkortasun eta hurbiltasunarekin garatu ahal izango dira.